

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#). [Onartu](#)

GAUR | 2017-03-06

Nork: [olatz mitxelena](#) - Mar 2, 2017

TXOTX EGIN, KRESALAREN USAINERA



Sagardogileak Albaolan izan dira, eskaintza aurkezten, eta san Juan baleontzia eraikitze lanak bertatik bertara ikusten.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak eta Pasaiaiko Albaola Itsas Kultur Faktoriak, eskaintza turistiko bat osatu dute elkarlanean. "Pakete turistiko" honen bitartez, itsasoari eta sagardoari lotutako euskal kultura zabaltzeko nahi dute.

Aurten, sagardotegietako arduradunak izan dira esperientzia probatzen lehenak. San Juanaren eraikuntza gertu-gertutik ezagutzen egon dira, Albaolan, Xabier Agote bidelagun.

Euskal baleazaleen edaria

Arrazoi historikoak baditu Albaolaren eta sagardogileen arteko harremanak. XVI. mendean euskal arrantzale eta marinela Ternura joaten ziren bakailaoa eta baleak arrantatzera San Juana bezalako baleontzietan. Bederatzi hilabetetarako edaria eraman behar izaten zuten, ura usteldu egiten zelako. Horregatik zen sagardoa arrantzaleen oinarritzeko edaria. Diotenez, marinela bakoitzeko hiru litro sagardo eramaten zuten eguneko.

Eskaintza txotx garaian ez ezik, gerora ere egongo da eskuragarri, partaide diren kimenean parte sagardotegietako gehienak irekiak daudelako urte osoan zehar.

Sagardotegiak ondorengoak dira:

- Aburuza (Aduna)
- Astarbe (Astigarraga)
- Iparragirre (Hernani)
- Lizeaga (Astigarraga)
- Oiharte (Zerain)
- Ola (Irur)
- Petritegi (Astigarraga)
- Rezola (Astigarraga)
- Saizar (Usurbil)
- Satxota (Aia)
- Zabala (Aduna)

Albaolarekin Txootx!

Eskaintza: Albaolara sarrera +sagardotegiko menua.
Erreserbak: 943 336 811 o turismoa@sagardotegiak.com
Informazioa: www.sagardotegiak.com / www.albaola.com
Sare sozialetan: #AlbaolarekinTxootx



SOROSPEN IKASTAROA EMANGO DU DYA-K

LOTUTAKOAK

ETIKETAK

ATALA

EGILEA



Iazko memoria aurkeztu du gaur Albaolak
 Nork: [olatz mitxelena](#) - Ots 15, 2017
[■](#) Kultura



[Galeria] Txalupaz eta gurdiaz, itsasoaz ...
 Nork: [olatz mitxelena](#) - Urt 14, 2017
[■](#) Kultura



Sagardogileek ere itsasoratu nahi dute
 Nork: [olatz mitxelena](#) - Abe 15, 2016
[■](#) Kultura



Albaolak IrriSarri Landeko txondorra pizt ...
 Nork: [asier perez-karkamo](#) - Abe 10, 2016
[■](#) Kultura

Albiste irakurrienak



ERRETERIAKO GURE ESKU DAGO-K AUZO BILERAK DEITU DITU



ERRETERIA-ORERETAKO KIROL TALDEEN ASTEBURUKO EMAITZAK

**OLATZ MITXELENA**

Ez dago ekarpenik

EGIN IRUZKIN BAT

Izena *

Email *

Website



CAPTCHA Code *

BIDALI IRUZKINA

[Cookie Politika](#) | [Pribatutasun Politika](#) | [Lege Oharra](#)



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU CREATIVE COMMONS ERABILERA LIZENTZIAREKIN.

